

## Errefuxiatuek eta salaketa gisako arteak dute protagonismoa TOPAKEtalk jardunaldien azken ekitaldian Artium museoan

- "Hizkuntzek bizitzak salbatzen dituztenean" mahai-ingurua bi artisten testigantzan baitan ardaztuko da, Aicha iglesias siriarrarenean eta Txaro Arrazola arabarrarenean
- Gari abeslariak abesti batzuk joko ditu eta Save the Children erakundeko kide batek GKEak errefuxiatuen esparruetan zer lan egiten duen azalduko du

2017/10/17

Gerrak eta sortzen dituzten desplazamenduak, artea komunikazio- eta salaketa-bitarteko gisa, elkartasuna eta boluntariora errefuxiatuen esparruetan eta hizkuntzen papera dira MondragonLinguak, Artium museoarekin eta Save the Children erakundearekin lankidetzan, antolatutako TOPAKEtalk zikloa itxiko duen diziplina anitzeko **HIZKUNTZEK BIZITZAK SALBATZEN DITUZTENEAN** ekitaldian jorratuko diren gaietako batzuk.

Radio Vitoria irratiko Pedro Espinosak gidatuko duen ekitaldia Gasteizko Artium museoan egingo da **datorren ostiralean, urriaren 20an**, iluntzeko 19:00etan, eta **Txaro Arrazola** eta **Aicha Iglesias** artistek eta **Gari** rock-abieslariak hartuko dute parte. Horrez gain, Save the Children erakundeko ordezkari bat ere izango da.

Ekitaldian zehar Mediterraneoan errefuxiatuen egoerari buruzko bideo bat proiektatuko da, eta Save the Children GKEko Azucena Garciak iruzkinduko du. Jarraian, Txaro Arrazola artistak errefuxiatuen esparruaz duen ikuspegia aintzat hartuta sortutako hainbat pieza aurkeztuko ditu. Egindako bidaietan izandako hainbat esperientzia eta ezagutu dituen hainbat errealitate kontatuko ditu, eta bizi garen mundu desberdina salatuko artea zergatik erabiltzen duen azalduko digu.

Aicha Iglesias jatorri siriarra duen artista plastikoa da. Ia bi hamarkadetan Alepon bizi izan zen, hiriko borrokek mehatxatuta bere bi alabekin hiritik ihes egin behar izan zuen arte. Etxetik ihes egitean, Damascon inauguratu behar zuen erakusketa prestatzeari utzi behar izan zion. Gaur egun Arabako herri batean bizi da eta han

egiten du lan. Hutsetik hasi behar izan du eta ezin izan du bere lan artistikoa garatzen jarraitu.

Hizlariak, gainera, hizkuntzaren alderdiaz arituko dira bizitzak salbatzeko unean eta errefuxiatuen bizitzako egunerokoa.

Bestalde, Gari abeslariak testigantzen artean tartekatuz joango den eskutada abesti joko ditu gitarrarekin.

Ekitaldian sartzeko 5 euroko sarrera solidarioa kobratuko da, eta errefuxiatuen esparruetara bideratuko diren bi salbamendu-jaka eta hiru pixoihal pakete erosteko inbertituko dira. Sarrerak [Internet](#) bidez edo Artium museoko leihatiletan eros daitezke.